


Stonoko matxinadaren ondorio gazi gozoak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Hego Karolinako kolonia (Ipar Amerika), 1739ko irailaren 9a. Hegoaldeko kolonietako esklaboek matxinada garrantzitsua piztu zuen Jemmy Cato kongoarrak. Kongoko 20 bat esklabo bildu zituen, horietako batzuek jaioterrian formakuntza militarra zutenak, armak lortu zituzten eta Floridara abiatu ziren askatasunaren bila. Bidean beste 60 esklabo inguruk egin zuten bat martxa armatuarekin. Stono ibaiaren inguruetatik abiatu zirenez, Stonoko Matxinada esaten zaio, baina Catoren Matxinada ere deitzen zaio, Cato edo Cater familia zelako Jemmyren jabe.

Martxak ez zuen lortu koloniako muga pasatzea. Hego Karolinako miliziak Edisto ibaian atzeman eta menderatu zituen. Ihes egin zutenek martxa berrabiaraztea lortu arren, astebete eta 30 km geroago geldiarazi zituzten behin betiko. Hildakoen balantzea ere esklaboek kontrakoa izan zen: matxinatuak 23-28 kolono hil zituzten, baina soilik gatazkan 35-50 esklabo hil zituen miliziak –eta gero beste hainbeste exekutatu omen zituzten, datu zehatzik ez dagoen arren–.

Arrakastarik izan ez zuen arren, hainbat ondorio ekarri zituen matxinadak; 1740an *Negro Act* edo Beltzen legea jarri zuten indarrean kolonian. Itxuraz, lege hark zenbait ondorio positibo ekarri zizkien esklaboei. Egia da haien gaineko kontrola zorroztu zela, baina bizi baldintzak hobetzea ere jasotzen zuen



THE AFRICAN AMERICANS

legeak. Isunak ezarri zizkien gehiegizko lana eskatzen zuten edo zigor gogorregiak erabiltzen zituzten jabeek. Baina nola salatuko zituzten jabe horiek, legeak esklaboek zuriak aurkako lekukotza ematea debekatua bazuten?

Horrez gain, plantazioetako jabeek beste neurri bat bultzatu zuten: 10 urteko moratoria edo luzamendua esklaboek inportazioan. Alegia, hurrengo hamarkada ez zen esklaborik sartuko Charlestongo portutik. Luzamendua amaitu zenean ere, Hego Karolinako esklabistek uko egingo zioten Kongo eta Angola inguruko esklaboak inportatzeari. Baina horrek ez du esan nahi matxinadak esklabisten iritzia aldatu zuenik. Alderantziz, jarduera indartu eta egonkortzeko

eta beren interesak defendatzeko hartu zuten neurria: kolonietan esklabo jaiotakoak Afrikan libre jaiotakoak baino otzanagoak zirela uste zuten.

Eta egungo dantzan nahiz musikan eragina daukan hazitxo bat ere erein zuen Catoren matxinadak. Martxan danbor afrikarrak erabili zituzten kode gisa, esklabo jabeek ulertuko ez zituzten mezuak zabaltzeko. Horregatik, 1740ko legeak perkusio tresnak debekatu zizkien esklaboei. Orduan, gorputza erabiltzen hasi ziren musika egiteko, eta juba dantza edo zaplada juba sortu zuten. Adituen esanetan, jazzaren erritmoetan eragina izan zuen horrek eta hip hop dantzak esklabo ez hain otzanen erantzunean du jatorria. ●



J.C. MERRIMAN

Bikingoak birziklatzaile

Goi Erdi Aroan, Europa iparraldean, beira lehengai geroz eta urriagoa zen eta beiragile bikingoek prozesu garesti eta nekeza egin behar zuten bitxiatarako eta luxuzko produktuetarako beirazko aleak lortzeko. Edo hori uste zuten arkeologoen orain arte. Aarhuseko (Danimarka) unibertsitateko ikerlariek ale

horien konposizio kimikoa aztertu dute, eta ondorioztatu dute beira birziklatu egiten zutela. Zehazki, erromatar mosaikoetako teselak inportatzen zituzten. Nahikoa zen teselak birrindu eta tenperatura baxuan urtzea beste erabilera bat emateko, Antzinaroko ondarea Erdi Aroko ondare bihurtzeko. ●